

Umeen agora

Otsailak 7 ostirala, LEUKOren bilera.

Talde bilera, zirkuluan jesarri eta elkarrekin gai bati buruz mintzatu, txandak errespetatuz, elkar adituz, argudioak arrazoitu eta elkarrekin ondorioak adostuz... Talde akelarrea, ideien jarioa, gai batetik bestera saltoka, adarretatik joatea behin eta berriro, enborrera itzuli, gorputzak mugitu egiten dira, ez da burmuinen bilera soila, umeen gorputzak, ezin gelditu ostiral eguerdiko tarte horretan, zaratak, zurrumurru etengabea, jolastu, zirikatu, galdu, oreka nola gorde, arreta piska bat, galtzen ari gara, ez dakit ondorio garbirik ateratzeko gai izango ote garen gaurko saio honetan... Umeak gogoeta prozesu batez jabetzen ditugunean jakin behar dugu desberdina izango dela guk aurretik etxean diseinatutako planarekin...

Umeen Herriko ideiak Lezamara ekartzeko saltoa egiteko, bi multzotan sailkatu genituen aurrez ateratako proposamenak: alde batetik herrian nolabaiteko azpiegituraren bat jartzea eskatzen zutenak: noria bat, igerilekuak jacuzziarekin edo zoo erraldoi bat izan; bestetik, eraldaketa eta beraz gogoeta sakonagoa eskatzen dutenak: adibidez kutsadurarik ez egotea, eskolarik ez egotea edo poliziak umeak dira bezalako ideiak.



Azpiegiturekin hasia erabaki genuen, eta proposatzen dituzten azpiegituren gainean, Baliabideen Mapa bat egiteko aukera aipatu genuen, azpiegitura horiek gure inguruan gaur egun non dauden kokatuz (ad. Bilbon, Getxon, Barakaldon, Port Aventura, Cabarcenon... dena delakoa). Gero, Lezamatik azpiegitura horietara joan ahal izateko nola konektatu pentsatu genezakeen. Izan ere, ez baitago herri

bakoitzean denetarik edukitzerik, baina joan gaitezke dauden lekuetara, antolatu gaitezke horretarako, eta hori bai proposatu ahal diogu Udalari...

Elkarrizketak GazteGunearen kudeaketara eraman gintuen ordea, Ikerrek bertatik PlayStationa kentzea proposatzen baitzuen, umeak bertara jarri eta adibidez futboleko aritzeko ez daudelako. Joko teknologikoei katean umeak ez egotea egiten dutela salatzen du, ez dutela bizitza sozialik. Mamitsua da gaia. Batzuek ez dute halako makinarietara joan ahal izateko eta bertan dute aukera bakarra, eta beste batzuei badirudi etxean debekatu eta bertara joaten direla jokatzera. Izarok Playean jokatzeko egun bat adostea proposatzen du, eta beste batek egunero gehienez bi ordu jokatzeko, baina hau gutxi iruditzen zaio hirugarren bati. Zuzenean ukitzen dituen gaia da hau.

Kurtzeako jolas parke berriak aritu ziren gero, eta eskatu dute ura edateko iturri bat jartzeko parkean bertan, baita argiztapena ere, gauez jolastu ahal izateko.

Haiek proposatutako azpiegiturak bueltatzen saiatu ginen: Lezaman izotz pista bat eraikitzea nahi lukete batzuk, txiki bat sikieran, bestela Gasteizeraino joan behar baitute izotz gainean patinatzen. Mungia bezalako Skate Park egitea ere gustatuko litzaieke.



Jolastu ohi duten lekuak kontatu zizkiguten ere, kalera irten aurretik. Yeurira joan ginen azkenik, ibilaldi txiki bat eginez.

Hurrengo bilera martxoaren 13an ospatuko dugu. Hemen ikus eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazkiak: <https://flic.kr/s/aHsmLkNjU6>